

Familia agurgarria:

Idazki honen bidez **HEDATZE** proiektuan **bigarren hiruhilekoan (abenduaren 21etik martxoaren 21erarte, 8 ostegun guztira)** ikasleei eskainiko dizkiegun tailerren inguruan informatu nahi dizuegu. Tailerrak **ostegunetan, 15:30etik 17:30era** burutuko dira. Hedatzeko egutegian (webgunean dago eta emailaz ere jaso duzue) ostegun guztien datak eskuragarri dituzue.

**KONTUZ!** Ondo behatu tailer ezberdinen datak. Tailer bakoitzak data ezberdinak ditu. Ez dira ostegun guztietan tailer guztiak landuko

Tailerren ezaugarriak askotarikoak direnez, ondoren zehaztuko dira tailer bakoitzaren datak, informazioa eta bestelako xehetasunak:

Tailerra	Arduraduna	Datak
<b>BIZIKLETA TAILER MEKANIKOA,</b>	Edorta Fontecha	Otsailaren 29, Martxoaren 7 eta 21
<b>Nori zuzenduta</b>	DBH-ko ikaslego osoari	
<b>Helburuak</b>	Bizikletaren atal nagusiak eta bakoitzaren funtzioa ezagutzea.. <ul style="list-style-type: none"> <li>● Tutuaren altuera erregulatzea.</li> <li>● Balaztak nola erregulatu jakitea.</li> <li>● Gurpilak nola desmontatzen diren jakitea.</li> <li>● Bizikletari oinarrizko mantenimendua nola egin jakitea.</li> <li>● Gurpil zulatua nola konpontzen den jakitea. Partxeak nola jarri jakitea.</li> <li>● Bizikletan eraman behar diren tresnak identifikatzea.</li> <li>● Bizikletaz ibiltzen denean bide-hezkuntzako ezagutza izatea.</li> <li>● Gymkhana bat egitea bizikletaz oinarrizko trebetasunak menperatzeko.</li> </ul>	
<b>Saio kopurua</b>	3 saio	

Tailerra	Arduraduna	Datak
<b>Ukelele tailerra</b>	Iñigo Lopez de Sosoaga	Urtarrilaren 11tik Martxoaren 7ra
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei. Gehienez 12 ikasle parte hartu ahal izango dute. Gehiagok izena eman ez gero, lehentasuna emango zaie Musika ikasgaia ez duten ikasleei. Hala ere arazoak egon ez gero, zozketaz aukeratuko dira partaideak.	
<b>Helburuak</b>	Ukelelea jotzen ikastea.	
<b>Saio kopurua</b>	6 saio	

Tailerra	Arduraduna	Datak
<b>Zinema eta Krisialdi Eko-soziala</b>	Jorge Caminos	Abenduaren 21etik Martxoaren 21 arteko Hedatze ostegun guztietan
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle eta irakasle guztiei	
<b>Helburuak</b>	Egungo gizarteek aurre egiten duten krisi ekologiko eta sozialaren kausak zehaztea eta horiek kritikoki aztertzea. Gure garaiko erronka klimatiko, energetiko, sozial eta politikoez jabetzea. Horiek etikoki eta zientifikoki aztertu.	
<b>Saio kopurua</b>	8 saio	

Tailerra	Arduraduna	Data
<b>Mahai joko tailerra</b>	Leire Fidalgo	Abenduaren 21etik Martxoaren 21 arteko Hedatze ostegun guztietan
<b>Nori zuzenduta</b>	DBHko ikasle guztiei	
<b>Helburuak</b>	Tailerra hezkuntzako lehen eta bigarren zikloko ikasleei zuzenduta dago. Tailerraren helburu nagusia jolasaren bidez ikasleen arteko harreman pertsonalak bultzatzeko espazio bat sortzea da. Gainera, mahai-jokoak tresna gisa erabiliz, irudimena, estrategia, elkarrekintza eta dibertsioa sustatzea komunikazioaren bidez, pantailak alde batera utzita.	
<b>Saio kopurua</b>	8 saio	

Tailerra	Arduraduna	Datak
<b>Zabalganako Urtekaria diseinatzen</b>	Maialen Lopez	Otsailaren 22tik martxoaren 21era
<b>Nori zuzenduta</b>	Tailerra bigarren zikloko ikasleei (3. eta 4.DBH) zuzenduta egongo da.	
<b>Helburuak</b>	<p>Ikasleek 2023-2024 ikasturteko urtekaria diseinatuko dute baliabide digitalak erabiliz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Diseinu eta adierazpen artistikoari lotutako kompetentziak lantzea: Diseinu digitalaren oinarrizko kontzeptuak barneratzea eta praktikan jartzea, Institutuko behar batzuei erantzunez.</li> <li>• Talde dinamika eta kudeaketa: Talde lana sustatzea. Urtekariaren estilo gida taldean adostea, arduen banaketa eta urtekariaren antolakuntza zehaztea besteak beste.</li> <li>• Komunikazioa: Informazioa edo edukiak ulertzeko eta komunikatzeko modua aztertzea baliabide idatzi eta artistikoen bidez.</li> </ul> <p>Tailer honek jarraipena izango du hirugarren ebaluazioan.</p>	
<b>Saio kopurua</b>	2 saio	

Tailerra	Arduraduna	Iraupena
<b>2. aukera eman!</b>	Mireia Landa eta Ana Saez del Burgo	Urtarrilaren 11tik martxoaren 7rarte
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei	
<b>Helburuak</b>	Etxean ditugun oihal zatiei, arropa zaharrei, euritako apurtuei, etab. Bigarren aukera bat ematea.	
<b>Saio kopurua</b>	6 saio	

Tailerra	Arduraduna	Datak
<b>Fun with Maths!</b>	Aitziber Ibañez	Abenduaren 21ean eta urtarrilaren 11an
<b>Nori zuzenduta</b>	Batxilergo ikaslegoari	
<b>Helburuak</b>	Erronken bidez matematikak modu ezberdin batean lantzea.	
<b>Saio kopurua</b>	2	

Tailerra	Arduraduna	Datak
Dinosaurioak eta Jurassic Park	Markel	Abenduaren 21etik Martxoaren 21 arteko Hedatze ostegun guztietan
<b>Nori zuzenduta</b>	DBH 1. eta 2. mailako ikasleei zuzenduta (nahiz eta 3-4. mailakoek apuntatzeko aukera daukaten).	
<b>Helburuak</b>	Dinosaurioen jatorria, aztarnategiak eta fosilak, dinosaurio-motak eta garaiak ezagutzea era dibertigarri batean. <b>Jarduerak:</b> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Lehenik dinosauruen eta garaiazen inguruko ezagutzak jasoko dira</li> <li>2. <i>Jurassic Park</i> pelikula ikusi eta gero agertzen diren dinosaurioak aztertuko ditugu.</li> <li>3. Dinosaurioen inguruko mural informatiboak sortuko ditugu eta institutuan zehar jarriko ditugu.</li> <li>4. Denbora izan ezker, dinosaurioen inguruko joko bat sortuko dugu.</li> </ol>	
<b>Saio kopurua</b>	8 saio	

Tailerra	Arduraduna	Iraupena
Euskarazko filmak eta telesaiak	Ane Bedaio	Urtarrilaren 11tik otsailaren 22rarte
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei	
<b>Helburuak</b>	Euskal kulturaz gozatu nahi? Gazteak protagonista dituzten istorio zirraragarriak ikus ditzakegu, barrez lehertzekoak, emakumeek ekoiztakoak, euskal zinemako berrienak, euskal musika eta musikariei buruzkoak, baita suspensea maite dutenentzako film eta telesailak ere. Zein nahiago duzu? Bazatoz gurekin film eta telesailak ikusiz gozatzeraz? Animatu! Politza izango da eta. Ikusi eta tertulia atseginak partekatuzeko momentu ezin hobea	
<b>Saio kopurua</b>	4 saio	

Tailerra	Arduraduna	Iraupena
<b>Korrika! batzordea</b>	Iñigo Peñalba	Urtarrilaren 11tik Martxoaren 7rarte
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei	
<b>Helburuak</b>	Duela bi urte bezala, tailer honen helburua 2024ko martxoan ospatuko den KORRIKAREN 23. edizioaren antolakuntza da: ikastetxeko kilometroaren kudeaketa, promozio ekintzak sustatzea, euskararen erabilera sustatzea, etab.	
<b>Saio kopurua</b>	6 saio	

Tailerra	Arduraduna	
<b>Rugby</b>	Yolanda Durana eta Iker Herce	Otsaila edo Martxoan - Datak zehazteke
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei	
<b>Helburuak</b>	GAZTEDI Rugby taldeko zenbait bolondrez etorriko dira gure ikasleekin Rugby-an aritzera.	
<b>Saio kopurua</b>	4	

Tailerra	Arduraduna	Iraupena
<b>Kosmetika Naturala</b>	Yolanda Durana	Otsailaren 1etik Martxoaren 22rarte
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei	
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kosmetika naturalean lehen urratsak ematea.</li> <li>• Olio esentzialak sortzeko erabiltzen diren lehengaiak (landareak, loreak...) ezagutzea</li> <li>• Zein propietate dituzten eta zertarako erabiltzen diren ikastea eta praktikan jartzea.</li> <li>• Kremak, txanpuak, tonikoak, desmakillatzaileak egingo ditugu.</li> </ul>	
<b>Saio kopurua</b>	5 saio	

Zuen seme/alaba edozein tailerretan interesatuta badago, etxera eramango duen matrikula-orria osatu eta sinatu eta zuen seme/alabak bere **tutoreari** entregatu beharko dio **abenduaren 15a baino lehen (ostirala)**.

Adeitasunez,

Zabalgana BHI